



*Gaur INDUSTRIA 4.0 jardunaldia burutzen ari da EUROPA Jauregian eta bertan LABek protesta ekintza egin du lan osasunarekin lotuta dagoen sarraskia salatzen. Izan ere, URKULLU Lehendakariak hitza hartu behar zuenean, LABeko kideek hitzartzea eten eta interpelatu dute zuzenean propaganda gutxiago egiteko eta erabaki politikoak behingoz hartzeko langileen osasuna, eta bizitza, bermatzeko.*

LAB-ek argi eta garbi utzi nahi du jardunaldi hau propaganda hutsa dela, gure ustez propaganda 4 industria 0, deitu beharko litzateke. Are gehiago, Jaurlaritzak eta Patronalak bultzatzen duten ereduaren prekarietatea 4 eta lan osasuna 0 baino ez dizkigute eskaintzen.

Horrelako propaganda ekitaldietan, errealitate gordina izkutatzen dute: 2017an Hego Euskal Herrian 43 langile hil dira, Industria sektorean 18 dira hildako langileak, 3 Araban; 22916 lan istripu eta 2586 lan gaixotasun erregistratu dira (hauek estatistika ofizialak dira, baina badakigu lan istripu asko ezkutatzen direla eta datuak makilatzen direla.)

Beraz, datu horiekin Eusko Jaurlaritzari eta Patronalari galdera zuzena egiten diegu: ze industria aurreratu saldu nahi digute, industrian 2 astero langile bat hiltzen denean?

LABek argi du lan istripu eta gaixotasun profesinalen atzean dagoen egiturazko arazoa prekarietatea eta enpleguaren kalitate eskasa direla. Patronalak prekarietatea zabaltzen du (langile berriak diskriminatzen, azpikontraten bidez, ETTen bidez, zabor kontratuekin, kontratazioan iruzurra eginez, formazioa ukatuz, segurtasun neurriak hartu gabe,...) eta Jaurlaritzak eta PNVk erabateko babes politikoa eskaintzen diote, eta ezagutzen ditugu horren ondorioak.

Pertsonengan apustua egiten dutela diote baina sarraski etengabe honekin bukatzeko borondaterik ez dago. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari eta Patronalari exijitzen diegu propaganda eta marketing gutxiago eta konpromiso zehatzak har ditzaten langileen osasuna bermatzeko, erabaki politikoak hartu behar baitira arazo hau konpontzeko. Lan osasuna bermatzea industria aurreratu baten ezinbesteko osagaia izan behar da.

LABek heriotza eta lan istripuen atzean dauden erantzule zuzen nahiz zeharkakoak salatzen jarraituko dugu, prekarietatea eta lan istripuak borrokatzen jarraituko dugu.

— [Prekarietatea salatu dugu Urkulluren aurrean](#)